



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Pradalesek adierazo dauenez, Autzaganeko obrak bukatzeko egin dan 21,9 milioi euroren lizitazioak ez dau inolango gain-kosturik eragingo

Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko foru diputatua Batzar Nagusien aurrean agertu da gaur, berak eskatuta, ekainaren bukaeran “guztiz” gelditu ziran BI-635 errepideko Amorebieta-Muxika zatiko lanen egungo egoeraren barri emoteko. Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, joan dan barikuan, irailaren 18an, Interbiak foru soziedade publikoak Autzagane ABEE-gaz eukan kontratua bertan behera iztea onartu eban, kontratua “ez beteteagaitik”, eta bilera horretan bertan, amaitu barik dagozan lanak bukatzeko eraikuntza proiektua onetsi zan, Urdinbideko tunelak bukatzeko, batez be. Pradalesek argitu dauenez, kontratu barriaren esleipena 2016ko otsailean egingo da, eta lan horreei berriro ekiteko oinarritzko aurrekontua 21.898.504 eurokoa izango da. Bere berbetan, aurrekontu horreek ez dau “handituko” “70,3 milioiko” jatorrizko proiektuaren zenbatekoa. Kopuru horri hobekuntza osagarrien ondoriozko beste “5,34 milioi euro” gehitu behar jakoz.

Foru Aldundiaren esku dagoan Interbiak soziedadeak baliorik barik itzi dau zazpi enpresak - Sacyr, Mariezcurrena, Bycam, Vicons, Cavosa, Zubieder eta Febide- osatutako Autzagane ABEE-gaz eukan kontratua, Urdinbideko tunelen hondeaketa lanak geratuz egindako “ez betete larriarengaitik”. Pradalesk adierazo dauenez, ekainean egiaztatu ahal izan eban Aldundiak geratze hori, eta ordutik aurrera, beharrak “ahalik eta arinen” barriro hasi ahal izateko beharrezkoa dan administrazinoko makineria martxan jarri eban. Saihesbidea errematetako hasera batean aurreikusitako burutzapeneko epea “25 hilebetekoa” izango da.

Foru diputatuak esan dauenez, ABEE-ak adierazo dau ezin dituala bere gain hartu hondeaketa proiektuaren ingurumen arloko eskakizun teknikoetatik sortutako kostu altuak. Eskakizun horreen artean lur-azpiko akuifero baten ganeko neurri zuzentzaileak egozan. Pradalesek azaldu dauenez, eginbehar horreek haserako proiektuan islatuta egozan daborduko. Aldundiko arduradunak iradoki dauenez, ABEE-ak beharrak itzi behar izatea, ABEE-aren beraren “kalkulu akats” baten ondorioa izan da, baldintzen pleguan “zehaztasun osoz jasoten ziralako kontratistarentzako egon eitekezan arriskuko transferentziak”, eta horreen artean “baldintza geoteknikoen, geologikoen edo hidrolgikoen ondoriozko hazkundeak” aitatu ditu.

Pradalesek batzarretako taldeen aurrean esan dauenez, ez da beharrezkoa ingurumen eraginari buruzko txosten barririk egitea Urdinbideko tuneleko beharrek jarraitu ahal izateko. 693 eta 695 metro dituen “hodi” bietako metro guztietatik 62 eta 63 metro geratzen dira hondeatzeko, hurrenez hurren, eta, beste ataza batzuen artean, “tunelaren erdia eta espaloi eta bide instalazino guztiak” estaltzea be falta da. Kanpoko beharrak ia guztiz amaituta dagoz.

Neurri kompensatzaileengaitik galdetuta, Pradalesek adierazo dau ABEE-ak kontratuaren baldintzen pleguan jasoten diran penalizazioei egin beharko deustela aurre. EH Bilduk zehaztu dauenez, penalizazino horreek “12.000 eurokoak” izan beharko litzatekez obra geldik egon dan egun bakotzeko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

OPOSIZINOAREN ZALANTZAK

Autzaganeko beharren jarraipenari buruzko azalpenak emoteko Pradales Bizkaiko Batzar Nagusien aurrera etortea eskatu dauen EH Bilduko Batzarretako Taldeak esan dauenez egoerea “larria” da, herritarrek jasan beharko daben atzerapena dala eta, eta zalantzan jarri dau orain beste enpresa batzuek lizitazio barrian parte hartu gura izatea.

PP taldeak, enpresa berberak lehiaketa barrira aurkezteko aukerea izango daben ala ez galdetu dau. Jesus Isasi batzordekideak uste dau sailak, beharbada, “akats” bat egin dauela eraikuntza proiektuan, baina diputatuak ezetz erantzun deutso.

Bizkaiko Ahal dugu taldeak egin dituan kalkuluak kontuan izanda, obrak hauteskundeak baino apur bat lehenago bukatuko dira, eta ea hori kasualidadea ete dan galdetu dau. Batzarretako talde horrek eskaerea egin dau, ingurumenagaz erlazionautako alderdiak be jasoko dituan kostuen amaierako auditoria egin daiten. Pradalesek esan dauenez, fiskalizazio behar hori ez da beharrezkoa izango, bere unean Kontu Publikoen Euskal Epaitegiak egingo dauelako. Dana dala, oposizino taldeak bat etorri dira, azalpenak “berandu” ailegau dirala esatean.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Pradales asegura que la licitación por 21,9 millones de euros para finalizar las obras de Autzagane no supondrá ningún sobrecoste

Bilbao, a 22 de septiembre de 2015

El diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, ha comparecido hoy en Juntas Generales, a petición propia, para dar cuenta de la situación actual de las obras del tramo Amorebieta-Muxika de la BI-635, paralizadas "totalmente" a finales del mes de junio. El responsable foral ha aclarado que el pasado viernes 18 de septiembre la sociedad pública foral Interbiak aprobó en su Consejo de Administración la rescisión del contrato con la UTE Autzagane por "incumplimiento" contractual y ha anunciado que, en esa misma reunión, se aprobó un proyecto constructivo para culminar las obras pendientes, principalmente para terminar los túneles de Urdinbide. Pradales ha señalado que la adjudicación del nuevo contrato se llevará a cabo en febrero de 2016 y que el presupuesto base para reanudar los trabajos será de 21.898.504 euros, lo que no supondrá -según él- "superar" el montante del proyecto original que alcanzó los "70,3 millones de euros", a los que habría que sumar otros "5,34 millones" en mejoras complementarias.

Interbiak, sociedad dependiente de la Diputación, ha rescindido el contrato a la UTE Autzagane, formada por siete empresas -Sacyr, Mariezcurrena, Bycam, Viconsas, Cavosa, Zubieder y Febide - debido al "grave incumplimiento" que suponía la paralización de los trabajos de excavación de los túneles de Urdinbide. Pradales ha señalado que fue en el mes de junio cuando la Diputación constató esta paralización y que, a partir de ahí, puso en marcha la maquinaria administrativa con vistas a reanudar los trabajos "lo antes posible". El plazo de ejecución previsto inicialmente para rematar la variante será de "25 meses".

Según el diputado, la UTE ha defendido que no puede asumir los altos costes que se derivan de las exigencias técnicas medioambientales del proyecto de excavación, en las que se encontraban medidas correctoras sobre un acuífero subterráneo, que según Pradales ya se reflejaba en el proyecto inicial. El responsable foral ha insinuado que el abandono de la UTE se debe a un "error de cálculo" suyo, ya que en el pliego de condiciones se recogían "taxativamente transferencias de riesgo" para el contratista, entre ellas, ha citado "incrementos derivados de condiciones geotécnicas, geológicas o hidrológicas".

Pradales ha asegurado a los grupos junteros que no son necesarios nuevos informes de impacto ambiental para continuar con los trabajos en el túnel de Urdinbide en donde restan por excavar 62 y 63 metros del total de los dos "tubos", de 693 y 695 metros respectivamente, y falta por completar el revestimiento de "la mitad del túnel y la totalidad de aceras e instalaciones viarias", entre otras tareas. La obra exterior está casi finalizada.

Preguntado por las medidas compensatorias por incumplimiento del contrato, Pradales ha señalado que la UTE tendrá que hacer frente a las penalizaciones recogidas en el pliego de condiciones contractuales. EH Bildu ha concretado que éstas tendrían que ser de "12.000 euros" por cada uno de los días en los que la obra ha estado paralizada.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

DUDAS DE LA OPOSICIÓN

El grupo juntero de EH Bildu, que había pedido también la presencia de Pradales en la Cámara vizcaína para que éste ofreciera explicaciones sobre la continuación de los trabajos en Autzagane, ha dicho que la situación es “grave” por el retraso que supone para los ciudadanos y ha dudado de que, viendo los precedentes, otras empresas quieran ahora participar en la nueva licitación.

El PP ha preguntado si las mismas empresas van a poder presentarse en el nuevo concurso. Su apoderado Jesus Isasi cree que el departamento puede haber cometido un “error” en el proyecto constructivo, algo que ha negado después el diputado.

Podemos Bizkaia ha calculado que los nuevos plazos supondrán que la obra concluya cerca de las elecciones y se ha preguntado si esto es casualidad. Este grupo juntero ha solicitado que se realice una auditoría final de costes que recoja también los aspectos medioambientales. Según Pradales, esta labor de fiscalización no será necesaria ya que la hará en su momento el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas. En cualquier caso, los grupos de la oposición han coincidido en señalar que las explicaciones llegan “tarde”.